

2^a.-Sarkaldeko edo kristiñauen arduradunak aukeratu, Azores-tik asita.

2^a.- Islandarrai itauna egin: Zer eskatzen dozue eraso-rik ez egiteko?

3^a.-Sarkaldekoai esan: Zer egingo dozue III mundua eta islam aurreratzeko?

Edinburgo-ondoko Gleneagles´en gaur 8 aundiak esan dabenez, gertu dagoz zorra parkatzeko, kutsadura alboratzeko eta Afrika´ri ta beste lurralde batzui laguntzeko.

Islan be gertu dago arorio edo petrolioaz arduratzeko, eurak dauke geiena ta mundua larri dago orregaitik, karuegia dalako. Guda Santua alboratu bearko leukee eta ondasunak obeto zaindu erriak aurrerapena izan dagien, aberastasuna gitxi batzuen eskuetara jausi barik.

Ba-dago bakerako bide-zidor bat or. Lortu bear dan ondorena litzake jakintza bien arteko mai bat iraunkortau-naz ezartea, sortzen diran arazoak aztertzeko eta erantzun egoklia emoteko.

Bakea egiteko bearrezkoa da jakintza bien alkar-izke-ta. Gaiñera alderdi bientzat gauza pozgarria izango litza-ke eta erlejiñoak berak bultzatu bear leukez, bai islamda-rrak eta bai kristiñauak, bakea egiteko, guda alboratzeko, Jainko baten seme-alabai dagokien lez.

OLAZAR´TAR MARTIN´EK
(2005-07-07)

ELORDUY TA URRESTI TAR JON ADIZKIDE JATORRARI

BARATZA

Gauzaz beterik dago
Erlorduy-ren baratza,
egiz, pozgarria
urrezko eguzkia
dizdizera ederrez
dau lagun maitia.

Tomate gorri-gorri,
ondo, dotore dator
eguzki goritan,
lora zuri zuriak
sortzen dabe azia
on-etorrietan.

Zeru urdiña agurka
goizian goiztik dator
argi zabalagaz,
baratza maitalea
betik gora begira
eskerrik onenaz.

Baiña gozo gozoak
eztitan dagoz goizez
eguzki sorreran,
ederragoak dira
gatzagaz gozaturik
maian egokeran.

Piperraren lorea
zuri-bitzetan dator
orlegi artean,
usain gozozko lore
janari biurtzen da
urrezko udean.

Kalabas ta kipula
baratzaren erdian
osasuntsu dagoz,
lur maitaleak dira
arrokeria barik
edertasun giroz.

PAULIN